

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Anastasio Beaskoetxea Egiarte

*Mendata,
Bizkaia
(1925-2022)*

Aurkibidea



Biografia



1925. urtean sortu zen Munitibarko Aldaolan, baina lau urte zituela ama hil eta Mendatako Errekalderra joan ziren izekoarenera. Aita zuen Errekaldekoa eta ama, berriz, Ibarruriko Irazabal auzoko Aurtenetxe baserrikoa. Zazpi neba-arrebatan seigarrena izan zen. Amaren heriotzaren ostean, oso bizimodu gogorra bizitzea egokitu zitzaien, gehienak neskame edo morroi irten behar izan zutelako eta ez zutelako eskolara joateko aukerarik izan. Eskolara barik basoko beharretara joan beharra izan zuen eta 11 urte gaz morroi joan zen. 15 urte zituela, Ibarruriko (gaur egun Muxika) Ajuria auzoan arrebaren etxean morroi zegoela, aita hil zieten. Soldadutzara joan eta ez zen gehiago Mendatara bueltatu. Izan ere, Brasilerako bidea hartu zuen eta bertan ikasi zuen idazten eta irakurtzen, besteak beste. Durangaldeko hainbat herritan eta AEBko Idahon eta Coloradon ere ibili zen beharrean, bizimodu gogor hari aurre egin ahal izateko. Etxanoko Urritxera ezkondu zen [Teodora Gerediagaz](#) eta bertan osatu zuen familia.

Zintak

MDT-004

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2013-03-02
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Bilbao Telletxea, Arantza

MDT-005

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea

- **Data:** 2013-03-02
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

MDT-006

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2013-03-02
- **Iraupena:** 44 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Aldaola baserria

- **Erref:** MDT-004/002
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:00:32. **Bukatu:** 00:01:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aldaola baserria non zegoen azaltzen du.

2. Gurasoen baserritik errenta-etxera

- **Erref:** MDT-004/003
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:01:46. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita Errekaldekoa zen eta ama Irazabal auzoko Aurtenetxe baserrikoa. Hara, Irazabalera, ezkondu ziren gurasoak, baina aita ez zen ondo konpontzen aitaginarrebarekin. Handik aldatu egin ziren errenta-etxera.

3. Aita zazpi ume txikirekin

- **Erref:** MDT-004/004
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:07:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Lau urte egiteko zituela, ama hil zitzaien. Aita zazpi ume txikirekin eta pobre geratu zen. Gainera, burua nahasten zitzaion aitari. Hiru umerekin Errekaldera

itzultzea erabaki zuen, arreba neskazaharreneana. Beste iloba umezurtz bat ere bazuen etxean izekok. Gosez izaten zituen umeak.

4. Eskolara barik, basoa garbitzera

- **Erref:** MDT-004/005
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:09:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Eskolara barik, aitzurra eman, eta basora bidaltzen zituen umeak izekok, basoa garbitzera. Basoa sasiz beteta zegoen. Egun osoa ematen zuten basoan eta ebakitako otea etxera eraman behar zuten sutarako. Urteetan, basoa garbitzera. Hamaika urterekin alde egin zuen morroi. Anbre baserrira joan zen.

5. Frontea Albiztik Lemoatxera

- **Erref:** MDT-004/006
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:09:52. **Bukatu:** 00:11:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Mendiganen bizkaitarrak eta Albizen karlistak egon ziren frontean, gerran. Albiztik Mendatara mugitu zen. Hegazkinak bonbardatzen ikusten zituzten. Tankeek eta abiazioak apurtu zuen inguru horretako frontea, eta Lemoatxera mugitu zen. Handik Bilbora.

6. Gernika bonbardatu zuten eguna

- **Erref:** MDT-004/007
- **Iraupena:** 0:06:36. **Hasi:** 00:11:28. **Bukatu:** 00:18:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gernika bonbardatu zuten goizean izeko neskazaharrenekin joan zen Gernikara arrautzak saltzera. Milizianoak harantz honantz ikusten zituzten, eta jendea artega edo. Giro horretan, izekok etxera itzultzea pentsatu zuen. Erreterria pasata, hegazkinak hasi ziren gainetik pasatzen, bonbak bota eta metrailatzen. Izekoa babestu ere ez zen egiten. Hegazkinak Ajangizetik Foru aldera sartzen ziren eta Gernikara. Marmizen gora hasi zirenean etxerantz, hirunaka etortzen hasi ziren hegazkinak; milizianoak aurkitzen zituzten bidean, atzeraka, sakabanatuta, erretiratzen; Kalamuako frontea apurtu zutela uste du. Iluntzean, Gernika sutan ikusten zen, eta paper erreak eta hautsak ekartzen zizkien haizeak. Bomba txikiak aurkitzen zituzten basoetan.</p>

Transkripzioa

–Gernikeko bonbardieue ez dotsut, ez dotsut espliketu; ondiño ixeko zaharragaz egon giñen, ez nintzen... baia orduntxe urtien juan nintzen Hambrera kridxeu. Ta, Gernikeko bonbardeoa, ba, egundo lagunik ez eban bixi ixeten, biher ixeten ixeko solteriek, egundo. Ta orduen ni eroan nendun, ni apartau nendun; Gernikera arrotzak saltzen joaten zan, ta sagarrak eukitten zittunin sagarrakin be bai, astotxuaz; ta orduen joan zan arrotzakin bakarrik. Ze hille zan? E... aprile, aprile. Datorren hille zan Gernikeko bonbardeuena. Ta Gerniken ibili gintzezan, ibili gintzezan, ba, arrotzak-eta saltzen, puestuen, ta ni ondoan, ta ikusten nabezan, ikusten genduzen milizianuek, haulan e, mosketo bat lepoan, ta batzuk banan, beste batzuk biñan, ta hainbeste milizianu ibili zin han. Ta jentie, bastante deskonfiau, deskonfiau ikusten gendun. Ia, ez edozein astelehenetan moduen... Nik ez dakit, e, zeaittik, jentiek haxe inpresiñua, edo zeozer euki eban jentiek eta milizianuek batetik bestera, ta batetik bestera. Ta, akordau jakon: “Bueno, etzera joan biher dou”. Ixeko zaharrari akordau jakon “etzera joan biher dou /biu/”; ze han jentie, ia e, raro ikusten eban, ta nik be bai. Gaztie ixen nintzen, baia jentie ikusten nabean batetik bestera ixilik, ixilik eta zerien ikusten nabean. Ta, hor, e, hamar bat miñutu eurrerau, abioiek etorri baiño, ba akordau jakon “Etzera joan biher dou; goazen etzera”. Ta ein ebazen /eibazen/ konpran batzuk be, azukerie ta oridoxa, edo zozer, konpra batzuk ein eban, eta arrotzak kendu ebazen, saldu ebazen, ta “etzera joan biher dou /biu/”, ta... Haur, hasi giñen zerien gora, Erreteridxen gora, ta goratxoau, Erreteridxe baiño goratxoau, abioiek, mmm... Irrintza bakotxik ataraten eben, irrintza bakotxik! Italianuek, dunkerrak; e... baia ataraten eben irrintza bakotxik, ta jentie irrintzaka, ze bonbak botaten ebezan, ta ametrailau. Ta, bueno, hango irrintzi, ta Foru aldera joaten zien, ta hango, hango ametrailadoraz, bueno... Dana, arbolak be birrinddu eitten ebezan. Ta [...] ixekoa joaten zan, ba, astotxuaz, astotxuaz, zeri be, ez kantarillara arrimau, ez ... ta ni sartzen nintzen kantarillara, etzun eitten nintzen, ta ha bapez sarriten; ta dana, dana metraillie, ametrailadoragaz, dana, irrintzie balak ataraten eben, irrintzie, ta ha zuzen, bapez erretireu. Ta jentie ikusten eban han baserridxetan ta, ze, kazakoak asko ibili zien, bastante; ta arin eitten eben. Buf! Zerien, Ajangizen dauzela, baia segundo bidxen-edo sartzen zien Foru aldera ta Gernike, Gernike, bonba... zertzen; ta botaten eben lantzien bonba bat, botaten eben. Horrek bonba txikidex, ta, ametrailadorak paseu, buf!. Terrible, irrintzi terrible! Bakizu, ordun sasoi, estraiñau horrek gauzak, egundo ikusi barik eta. Ta, gero, hasi zien, gora joan giñenin, Marmiz, bakizu Marmiz? Bai, zuk dana ezautzen dozu; bai.

–Neure ingurue bai.

–Bai, bai, bai, bai, bai. Ta Marmizen gora hasi giñenien, ba, etor zien abioiek hirunan-hirunan, hirunan, hirunan, hirunan. Zemat ez naz akordetan, baia hirunan hirunan hirunan, grupoak etorri zien. Ta hasi zien bonbardietan. Ta ordukorik gehidxau ez dakit. Joan gintzezan etzera; aitte topau gendun, aitte topau gendun arto ereitten, behidxekin soloan, ta lantzen behin milizianu bet euren fusillek lepoan ta, erretiradan; Kalamue, pentseten dot apurtu ebela zera, frentiek, ... o sea ke Francon alderdiko zerak, ta eon zan, ba, milizianuek biñan, hiru be bai, banan be bai; ta ikusten zien, ba, lekun, lekun, lekun ikusten zien. Desbandada, desbandada. Ta grupo haundidex barik, gitxi, gitxi ikusten zien, banan-banan edo biñan edo hirunan ikusten zien Gernikerantza, ikusten zien. Ta Gernikek iluntzidxen be, ondiño, errekan, beheko errekan bizi giñen, baia dana ilumineu eitten eban, zera. Ta etorten zan, ba, papelan zerak, heutzek, ta zerak esaten dana, su bete gar bat eitten da basoan edo, eta

harek botaten dittun zerak, keiek eta heutzek etorten zien ondiño Mendata hara azpirarte; Errekalde hantxe egon zan; ta etorten zien, ta bonban e... bonbak botaten zittuen, horrek bonba txikidxe botaten zittuen, holan, zeindda guardasol moduko zerakin botaten ebezan, parakaide txikidxe botaten ebezan ta harek be haixiek ekarritte topaten genduzen basoan ta; ta ze asko bota eben ta bonba txikidxe baserridxetan ta; ta etorten zien. Ta gehidxau, ba, ordukorik ez dakit gehidxau.

7. Alde egin zuen hamaika urterekin, morroi

- **Erref:** MDT-004/008
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:18:04. **Bukatu:** 00:18:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Anbre baserrira alde egin zuen, eta han eman zituen urte batzuk morroi. Handik "Ajujera" (Ajuriara), arrebarengana.

8. Umetan morroi, basoko lanetan

- **Erref:** MDT-004/010
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:19:41. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Ajuria auzoan egon zen morroi. Bi urte egin zituen eta alde egiteko esan zioten. Berriz itzuli zen Errekalderra. Basoko lana egiten zuen.</p>

9. Katuak ilobak maino maiteago

- **Erref:** MDT-004/012
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:20:46. **Bukatu:** 00:23:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Diru apur bat eman zion baserriko ugazabak eta Errekalderra itzuli zen eta han egon zen soldadutzara joan arte. Hamabost urterekin, izapideak egin zituen itsasora joateko nabigatzera. Mundu Gerra zen, baina berak handik irten beharra zuen. Gose garaia zen, lana zuenean ere, ez zuen ostatua ordaintzeko adina irabazten. Izeko neskazaharrak maiteago zituen txakurra eta katuak ilobak baino. Beste bi neba-arreba ere morroi edo neskame joan ziren.

10. Nabigatzeko gomendiozko agiria behar

- **Erref:** MDT-004/013
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:23:12. **Bukatu:** 00:26:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Hemezortzi urterekin deitu zioten Marinar soldadutza egiteko. Itzuli zenean, nabigatzera joan nahi zuen, baina, ez zuenez gomendiozko agiririk, ez zuen lortzen lanik. Obretan hasi zen lanean, baina ez zitzaion heltzen gosea kentzeko. Estraperloko janaria oso garestia zen: norberak erositakoa ere ostu egiten zuten.

11. Brasilera joan zen

- **Erref:** MDT-004/014
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:26:38. **Bukatu:** 00:29:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Euskal Herrian ez zuen dirurik irabazteko modurik eta atzerrira joatea pentsatu zuen. Oso zaila zen mugak zeharkatzea. Gazteren batzuk joaten ziren polizoi. Belarra ebakiz dirua aurreztu zuen, eta paperak ondo eginda, Brasilera joan zen.

12. Brasilen ikasi zuen idazten eta irakurtzen

- **Erref:** MDT-004/015
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:29:11. **Bukatu:** 00:32:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:

Brasilen ikasi zuen idazten eta irakurtzen. Mekaniko laguntzaile hasi eta mekanika ere ikasi zuen. Lanean aurrera egin zuen, baina osasunak egiten zion huts. Euskal Herrira itzuli zen, bueltatzekotan, baina ez zen itzuli. Urritxen, Etxanon, bizi izan dira harrezkero, azken bost urteetan izan ezik.

13. Durango aldean mekanika lantegietan

- **Erref:** MDT-004/016
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:32:11. **Bukatu:** 00:35:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak

Laburpena:

Brasiletik etorrita, Durangon hasi zen lanean Estancona tailer mekanikoan. Hilabete batzuk egin eta Duñaiturria y Estancona lantegira aldatu zen. Bost urte eginda, Zornotzako Izar-era joan zen

14. Ameriketara artzain

- **Erref:** MDT-004/017
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:35:32. **Bukatu:** 00:38:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Ameriketako Estatu Batuetara joan zen artzain. Idahora joan zen; bost hilabete egin zituen ugazaba frantses euskaldun batekin, baina oso gogorra egiten zitzaion hango bizimodua; artzainen elkartearen bitartez aldatu zen Coloradora, baina han ere ez zen egokitu ondo.

15. Buruko minak

- **Erref:** MDT-004/018
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:38:40. **Bukatu:** 00:40:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:

<p>Etxera itzuli zen Ameriketatik, eta hogeitaz urtean egin zuen lan, jubilatuta arte. Euskal Herrian ere buruko minak izaten zituen. Alabak enplastuak jartzen zizkion. Sinusitisak eragiten zizkion buruko minak. Ebakuntza egin ziotenean hobetu zen. </p>

16. Artzain, gizarte segurantzarik gabe

- **Erref:** MDT-004/020
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:43:04. **Bukatu:** 00:45:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Estatu Batuetara joan zen, emaztea eta umeak utzita. Emazteari bidaltzen zion dirua. Artzain zegoela, ez zuten gizarte segurantzarik. Etxera itzuli zen, zazpi hilabete eginda Ameriketara.

17. Umeak baserrietara morroi

- **Erref:** MDT-004/021
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:45:21. **Bukatu:** 00:47:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Euskal Herrian ia ez zuen idazten ikasi. Inoiz eskolara joan gabe hazi zen. Umeak esplotatu egiten ziren. Meatzarien semeak eta, joaten ziren baserrietara morroi. Morroi zegoela, bazuen zer jan; familiaren etxean ez.

18. Domeketan txirrindolan

- **Erref:** MDT-004/022
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:47:43. **Bukatu:** 00:49:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Domeketan elkartzen ziren beste ume batzuekin jolaserako. Burdinak eta alanbreak bilatu eta txirrindolak egiten zituzten. Astegunean basora ahuntzekin eta aitzurrekin

19. Tailerreko soldata ez zen bizitzeko nahikoa

- **Erref:** MDT-004/024
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:54:32. **Bukatu:** 00:58:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Estancona tailerrean lanean ari zela, apopilo bizi zen. Orain baino errazagoa zen lana aurkitzea. Domekak ziren egun libre bakarra, baina sarritan domeketan ere belarra ebaki behar zen dirua ateratzeko. Lan asko egin behar zen apur bat irabazteko

20. Soldadutzatik etorrita, hainbat lan

- **Erref:** MDT-004/025
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:58:20. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Leku askotan ibili zenez lanean, toki askotan zituen lagunak. Elorrion ere egin zuen lan, albaitariaren etxean. Garitaonandia negutegietan ere egin zuen lan. Garai hartan hasi zen negutegien arrakasta eta lan asko zegoen.

21. Bilbon ezagututako bi neska arratiarrekin harremana

- **Erref:** MDT-005/003
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:01:15. **Bukatu:** 00:04:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Bilbora zinemara joan zen batean Arratiako bi neskarekin elkartu zen. Lemoan geltoki ondoko tabernan zeuden neskame. Lagun egin ziren eta hurrengoan ere elkartzekotan geratu ziren. Bi nesketako bat gustatu zitzaion, baina mutil-laguna zeukan. Hori jakin zuenean, bakean utzi zuen. Beste lagunak, ordea, interesa zuen berarengan. Anastasiok ez zion esperantza faltsurik eman nahi izan.

22. Arrebaren etxean morroi zegoela, aita hil zieten

- **Erref:** MDT-005/006
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:08:17. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Ajurian (Ibarrurin) egon zen, arrebaren etxean, morroi. Beste edozein etxetan balego legez lan egiten zuen: euria zenean busti-busti eginda, basoko lanetan, uda partean baserriko beharretan... Han zegoela, anaia gazteagoa etorri zitzaion auzoko batek aita hil zuela esatera.

23. Auzoko batek aita hil zuen lur-sail batzuen gorabehera

- **Erref:** MDT-005/007
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:13:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurak eta lur pribatuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Ikeria errotako gizona, goiko bidera irteteko, beste batzuen lur-sailetatik pasa behar izaten zen eta nahi zuen lekutik pasatzen omen zen. Anastasioren aitak, izebaren lur-sailak defendatzearen, Ikeriako gizonari aurre egin zion

behin eta hark hil egin zuen, eskopetarekin tiro bat emanda. Anastasiok 15 urte zituen. Auzokoak zatituta geratu ziren, batzuek beraien alde egiten zuten eta beste batzuek ez.

24. Errekalde baserriko basoetara lanera

- **Erref:** MDT-005/025
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:40:59. **Bukatu:** 00:42:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Bizimodu gogorra izan zuten Errekalde baserrian. Bi ahuntz hartu eta beti basora, beharrera. Otea ekartzen zuten etxera,ugarri moduan. Umeei baso gehientsuenak garbitu zituzten, jardunean-jardunean.

25. `Piston´soinu-jotzailea Mendatako jaietan

- **Erref:** MDT-005/030
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:50:02. **Bukatu:** 00:52:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Mendatan San Migelak ospatzen ziren eta Albiz auzoan Madalenak. Txistua eta danbolina. Borrokak ere izaten ziren sarri. Asto edo idi-probak. Ardo asko edaten zen. Etxebarriko `Piston´soinu-jotzailea joaten zen batzuetan. Tabernabarrikoen senidea zen. Dantzan egiteagatik ordaindu egin behar izaten zuten.

26. Emakumeek ordaindu ez, baina eskubiderik ere ez

- **Erref:** MDT-005/033
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:55:05. **Bukatu:** 00:56:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Erromerietan mutilek ordaindu egin behar izaten zuten, dantza egiteagatik. Txartel bat jartzen zieten jada ordaindu zutenei. Neskek ez zuten ordaintzen. Tabernan ere mutilek ordaintzen zuten. Andreak ez ziren bakarrik sartzen tabernara eta ez zuten erretzen. Txarto ikusita zegoen, batez ere herrietan. Prakai janztea ere bai.

27. Ganaduaren larruarekin etxean egindako oinetakoak

- **Erref:** MDT-005/035
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:57:42. **Bukatu:** 01:00:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Gaztetan abarketak erabiltzen zituzten. Merkeak izaten ziren. Neguan gomazko abarkak, beharrerako. Larruzkoak garestiagoak izaten ziren. Zapatak ondutako larruarekin eginak. Azpian iltzeak izaten zituzten, tatxetak, ez labaintzeko. Etxean ganaduaren larrua baldin bazegoen, abarka antzekoak egiten ziren, ondu gabeko larru harekin.

28. Umetan arropa zahar eta zikinekin

- **Erref:** MDT-005/036
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:00:20. **Bukatu:** 01:01:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Umetan arropa zaharrekin eta ahal zen moduan ibiltzen ziren. Errekalde baserrian egon zirenean, egundo arroparik garbitu ere ez. Noizean behin Gernikan neskame zegoen arreba joaten bazen, hark garbitzen zizkien arropak. Izebak sekula ez.</p>

29. Arrebaren neskametza

- **Erref:** MDT-005/038
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:02:03. **Bukatu:** 01:03:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Neskameak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Jesusa, arreba, Zornotzan egon zen neskame taberna batean, 11 urterekin, gerra aurretik. Hangoek etxerako moduan hartu nahi izan zuten, baina gerra hasi zenean, denak ihesean joan ziren eta hantxe bukatu zen bere neskametza. Gerra sasoian Bilbon egon zen neskame. Handik Ajuria auzora (Muxika) ezkondu zen 21 urterekin. Beste lanetan ez, baina Gorritxu tabernan gizarte segurantzaz ere ordaintzen zioten.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com